AYUNTAMIENTO DE LA N. VILLA
DE
PORTUGALETE

ANDRE-GIZONEN AUKERA BERDINTASUNAREN ALDEKO I. PLANA: PORTUGALETE, 2003-2006

ATARIKOA

Portugaleteko Udalak 2000. urtean ekin zion udalerrian aurrena izango zen Andre-Gizonen Aukera Berdintasunaren aldeko Plana prestatzeari.

Lehenengo eta behin aztertu egin zuen Portugaleteko emakumeen egoera eta, azterketa horrek emandako datuetatik abiatuta, Gizarte Ongizate Sailak Andre-Gizonen Aukera Berdintasunaren aldeko I. Jardunaldiak antolatu zituen, helburu nagusiak bi zirelarik: bata, udaletxeko langile eta udalerriko gizarte agenteei aukera berdintasunaren gaineko prestakuntza ematea, eta bestea, udal sailek eta udalerriko gizarte agenteak elkar hartuta eta batera jardutea.

Jardunaldiok, halaber, bidea zabaldu zuten Gizarte Zerbitzuak harremanean has zitezen proiektua interesatzen zitzaien udal teknikariekin, eta komunikazioan ere has zitezen udalerriko elkarteen ordezkariekin. Bestetik, jardunaldiok agerian utzi zuten udal funtzionamenduaren beharretako bat: sexismorik gabeko hizkerari buruzko arauak ezarri beharra, alegia, Udalak ekoizten zituen testuetan erabiltzeko; horregatik pentsatu genuen sexismorik gabeko estilo-liburua prestatzea, udal langileei begira.

Orduan eratu zen Aukera Berdintasunaren aldeko Udal Planaren batzorde mistoa, hau da, plana prestatu duen taldea eta martxan jarri, bilakaeraren aditu egon, aholku eman eta ebaluatzeaz ere arduratuko dena. Batzorde mistoa lantaldea baino ez da eta hauek guztiak ditu osakide: udaletxeko langileak, talde politikoak, udalerriko elkarteen ordezkariak eta emakumeen mugimenduko ordezkariak ere bai. Lagun multzo heterogeneoa da, beraz, osakideak elkarren oso desberdinak direlarik, heziketa, jardun, interes politiko eta esperientziari bagagozkio.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

Bestetik, nabarmendu beharra dago plana prestatzeko prozesua benetan bitxia eta berria izan dela, geldoa ere bai, helburu nagusia izan baitu ahalik eta gizarte agente gehien inplikatzea.

Horrelako talde bat abian jartzeko, gutxienezko ezagutza-maila oinarrizkoa bermatu behar izan dugu ezeren aurretik; horregatik aztertu dugu desberdintasuna oro har, beste erakundeek arlo horretan hartu dituzten erabakiak eta Udalak har ditzakeenak ere bai. Jardun hori heziketa-jarduna izan da funtsean, astean behin egina, horretarako kontrataturiko aditu baten zuzendaritza pean. Metodoa parte hartzeko irekia izan da, eztabaida-taldeak antolatu dira, proiekzioak izan ditugu, erakusketak ere bai, agirien trukaketa eta abar.

Bilerak lau hilabetetan egin ostean, batzordeak planaren zirriborroa burutu eta Andre-Gizonen Aukera Berdintasunaren aldeko II. Jardunaldietan azaldu zuen. Jardunaldiotan herritarrek oro har, udaletxeko langileek eta Portugaleteko eta inguruko herrietako elkarteen ordezkariek parte hartu zutenez gero, iradokizun-iritzi ugari bildu genuen planaren zirriborroaz. Batzorde mistoak ekarpen-proposamen horiek guztiak kontuan hartuta, bigarren zirriborroa prestatu zuen.

Andre-Gizonen Aukera Berdintasunaren aldeko I. Plana, azkenik, Portugaleteko Udalbatza Osoak onetsi zuen aho batez 2002ko abenduaren 30ean; horrela formalizatu zuen Udalak andre-gizonen parekotasuna aldeko konpromisoa.

María Dolores Ciordia
Gizarte Ongizate alkateordea

AURKEZPENA

Historiak, emakumeak azaltzean, desitxuraturik azaldu ohi dizkigu, eremu pribatuetan itxita eta eginkizun nagusi amatasuna, seme-alabak hazi eta hezi, etxea antolatu eta garbitu eta harreman afektiboak zaintzea zituztelarik. Feminismoa, XVIII. mendean nazioartean hedatu zenean, aldiz, emakumeen eskubideak, mendeetan aitortu gabeak, aldarrikatzen hasi zen. Feminismoak emakumeek historiari egin dioten benetako ekarria agertu zuen eta horrela lan zinez gogorrari ekin zion, emakumeen lorpenak,

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

askotan gizartearen begietatik kenduta, ikusgarri egitearren. Urteak joan urteak etorri eta emakumeen egoeraren aldeko lanak eta konpromisoak, dudarik gabe, fruitua eman du: besteak beste aipa dezakegu erakundeak ere lanean hasi direla andre-gizonen berdintasunaren alde egiten.

Nazioarteko erakundeek, esan bezala, aitortu dute benetako desberdintasuna dagoela andre eta gizonen artean eta, horren ostean, abian jarri dituzte berdintasunaren aldeko politikak, zeinen helburua baita oztopoak duseztatzea, legeek eta arauek aitortzen dituzten eskubideak eta aukerak benetan bete daitezen.

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) dauka emakumeen egoerari buruzko gomendio eta txostenak prestatzeko ardura. Hortaz, NBEko nazioarteko batzarrak eta horien erabakiak berdintasunaren politiken aurrekaritzat jo dira. Nazioarteko erakundeek emakumeen egoeraz duten kezka 1975ean agertu zen aurreneko aldiz, Emakumearen Nazioarteko Urtea ospatu zenean. Horren atzetik etorri ziren Kopenhage (1980) eta Nairobiko batzarrak, zeinei esker hainbat erabaki zehatz hartu baitzen emakumeak baztertzearen kontra. Emakumeen IV. Mundu Batzarrak (Pekin, 1995) gobernuen konpromisoa azaldu zuen genero-bazterkeria deuseztatzeko. Horri begira, bi agiri prestatu ziren: Pekingo Deklarazioa eta Ekintzarako Plataforma, alegia. Bigarren hori egitaraua da, emakumeak dagokien botereaz jabetzeari begirakoa. Gainera, Pekingo batzarrak deia egin zuen emakumeek bizimodu publikoan eta pribatuan esku hartzeko eta ekonomia, gizarte, kultura eta politika arloetan erabakiak hartu ahal izateko dauzkaten oztopoak bidetik kentzeko.

Berrogeita hamar urteotan jardun du NBEk emakumeak baztertzearen aurka. Haren Karta Magnaren I. artikuluak gizaki guztien oinarrizko eskubideak, duintasuna eta balioa berresten ditu, emakumeak eta gizonak eskubideei dagokienez berdin-berdinak direlarik. Horretaz gain, 1979an, emakumeen aurkako bazterkeria mota guztiak desagerrarazteko konbentzioa onartuta, bateratu egin zituen emakumeei buruz hartu beharreko erabaki guztiak.

Konbentzio horrek hogeita hamar artikulu ditu eta lege-indarrez onartzen ditu oro har onetsitako hainbat abia-irizpide eta erabaki, emakumeek eskubide berberak izan ditzaten nonahi. Eskubide-berdintasuna eskatzen

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

du, beraz, emakumeentzat, haien egoera zibila dena delarik eta eremu guztietan: politika, ekonomia, gizarte eta kulturan ere bai. Halaber eskatzen du nazioetan legeak ezartzea bazterkeria galarazteko, gomendatzen du aldi baterako erabaki bereziak hartzea andre-gizonen berdintasuna ahalik eta lasterren lortzeko eta hainbat ebazpen ere hartzea, bazterkeriari eusten dioten gizarte eta kultura ohiturak aldatzeko. Konbentzioa 1981ko irailaren 3an hasi zen indarrean.

Europako Komunitateak ere hainbat arau eman du andre-gizonen aukera berdintasunaren alde eta ekintza positiboko egitarau zenbait ere jarri du abian. Europako Parlamentuak 1982an ebazpena onetsi zuen 1982-1985 aldiko Ekintza Positiboko I. Planaren helburuak ezartzeko. Ordutik aurrera bost plan bete dira eta gaur egun bosgarrena (2001-2005) dago indarrean.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Europako Kontseiluaren Gomendioa, 1984ko abenduaren 13koa, emakumeen aldeko ekintza positiboei buruzkoa. Gomendio horrek estatuei eskatzen zien ekintza positiboa erabiltzea, batetik, emakumeek pairatzen duten egitatezko desberdintasuna deuseztatzeko, hala beren lan-bizimoduan nola gizon-emakumeen arteko eginkizunen banatze tradiziozkoan oinarritutako jarrera, portaera eta egituretan, eta bestetik, emakume gutxi dauden arloetan gehiago egon dadin.

Estatuaz ari garela, berdintasuna Konstituzioko 14. artikuluak aipatzen du. Badio espainiar guztiak direla legez berdinak eta ezin dela inor baztertu, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein arrazoi pertsonal zein sozialagatik.

Era berean, Espainiako Emakumearen Institutuak aukera-berdintasunaren aldeko lau plan bultzatu ditu. Gaur egun laugarrena dago indarrean, hau da, Andre-Gizonen Aukera Berdintasunaren aldeko IV. Plana (2002-2005).

Gure autonomia erkidegoan, Estatutuko 9.2. artikuluko D atalak badio euskal botere publikoek, beren ahalmenen eremuan dihardutelarik, erabakiak hartuko dituztela gizakiaren eta gizakiek osatzen duten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak izan daitezen.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

Bestetik, Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bitartez, Emakumearen Institutua –Emakunde erakunde autonomiaduna– sortu zuen sexuen berdintasuna sustatzeko, horretarako oztopoak kentzeko eta egitatezko zein zuzenbidezko bazterkeria mota guztiak desagerrarazteko.

Emakundek Ekintza Positiboko I. Plana (1991-1994) jarri zuen abian, zeinari esker hasi baitira martxan aukera-berdintasunaren aldeko politikak. Gaur egun III. plana (2000-2004) dago indarrean, Eusko Jaurlaritzak onetsita 1999ko abenduaren 21ean.

Bizkaiko Foru Aldundiak, botere publikoei emakumeen bazterkeriaren inguruan dagokien ardura bere gain hartuta, 2000ko martxoan sortu zuen Aukera Berdintasunaren eta Genero Politiken Unitatea; besteak beste, eginkizun dauka Andre-Gizonen Aukera Berdintasunaren aldeko Foru Plana (2000-2003) garatzea.

Toki Administrazioa azken maila (edo lehena, herritarren ikuspuntua hartuta) dugu botere publikoen hierarkian. Goiko mailek bezala, Toki Administrazioek legezko ahalmena dute eremu honetan jardun ahal izateko, Toki Jaurpidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 28. artikuluak emanda, dioelarik udalek beste herri administrazioen jarduketak osatu ditzaketela, batik bat hezkuntza, kultura, emakumeen sustapen, etxebizitza, osasun eta ingurumena babestearen alde. Horri gehitu beharra dago, esan bezala udalak hurbil-hurbil daudenez gero herritarrengandik, udalek garatzen dituzten jarduketek zuzenago eragiten diotela andre-gizonen berdintasunari.

Beraz, Portugaleteko Udalak andre-gizonen benetako berdintasuna lortzeko xede garbia duela, Andre-Gizonen Aukera Berdintasunaren aldeko I. Plana prestatu du. Plana prestatzean honako irizpide oinarrizkoak hartu ditu kontuan:

1. Planaren prestaketan mota guztietako taldeek (hala udaletxekoek nola gizarte eta politika arlokoek) hartu behar zuten parte.
2. Andre-gizonen desberdintasuna fenomeno orokorra izanik, gizarte arlo guztietan agertzen da, bizitzaren alor guztiekin dauka zerikusia: hezkuntza, kultura, ekonomia eta abarrekin. Arazoa, beraz, denoi dagokigunez gero, denok lagundu behar dugu konpontzen.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

3. Desberdintasuna oro har ulertzeko modu horren ondorioz, plana udal sail guztietan aplikatu behar da, zeharkakotasun abia-irizpidearekin bat etorriz.
4. Plana garatuko bada, udal sailek euren artean, eta beste erakunde batzuekin ere, koordinaturik jardun behar dute.

Behin-betiko planak sei arlo ditu, bi atal handitan banatuta: lehen atalak (*1. Udala aukera-berdintasunaren eredu*) udaletxean bertan sustatu nahi du berdintasuna; bigarren atalak, bada, hirian sustatu nahi du berdintasuna eta honako arloak ditu:

2. Hezkuntza eta lan eta familia bizimoduak bateratzea
3. Enplegua eta prestakuntza
4. Bizi kalitatea
5. Kultura, elkartegintza eta kirola
6. Hirigintza

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

LEHEN ATALA: PORTUGALETEKO UDALA. AUKERA-BERDINTASUNAREN ALDEKO HELBURUAK ETA EGITEKOAK

1. ARLOA. UDALA AUKERA-BERDINTASUNAREN EREDU.

Azken ikerketen arabera, andre-gizonen arteko benetako berdintasuna urrun daukagu oraindik eta, nahiz eta andre-gizonek eskubide berberak eduki, aukera berberak ez dituzte.

Portugaleteko Udalak, zailtasun horien guztien jakitun, Andre-Gizonen Aukera Berdintasunaren aldeko I. Udal Planean hainbat zeregin bildu du, andre-gizonen arteko berdintasunaren oztopagarriak kentzeari begira. Lehen atal honetako zereginak, edo egitekoak, bada, aukera berdintasunaren abia-irizpidea udal osoaren jardunean txertatzeari begirakoak dira, udala ereduzkoa izan dadin udalerriko erakunde publiko zein pribatuen eta herritarren begietan.

Nahiz eta beste administrazio batzuek ere urteak eman dituzten andre-gizonen berdintasunaren aldeko borrokan, garbi dago udalak beste edozein administraziok baino hurbilago dituela gizartearen beharrizan eta eskakizunak eta, horren ondorioz, zuzen-zuzen dagokiola beharrizan-eskakizunon ardura. Udalek, beraz, ezinbestez hartu behar dute esku berdintasunaren aldeko politikan.

Portugaleteko Udalaren Gizarte Ongizate Sailak 2001. urtean Portugaleteko emakumeei buruz egin zuen azterlanaren arabera, Portugaleteko udaletxean 302 langile daude: 221 gizon eta 81 emakume. Esan dezakegu, beraz, nahiko alde handia dagoela gizon eta emakume kopuruen artean. Bestetik, nahiz eta gero eta emakume gehiago ari diren lehen galarazita zituzten lanpostuetan, hasi berriak baino ez garela benetako berdintasunerako bidean. Plan honen bidez, beraz, aukera garbia du Udalak bere barnean berdintasuna sustatzeko eta herritarren begietan imitatu beharreko eredu legez agertzeko.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

1. helburua. Portugaleteko Udaleko langile guztiek jakin dezatela zer egiten ari den Udala aukera berdintasunaren alde.

1.1. EGITEKOA. Udalbatzak Aukera Berdintasunaren Aldeko I. Plana onesteko erabakiaren berri eman.

1.2. EGITEKOA. Udalaren web gunean tokitxo bat sortu, Udal barruko zein kanpoko jendearen erabilgarri, informazioa emateko aukera-berdintasunari buruz. Halaber, gunera edozeinek helarazi ahal izango ditu iritziak eta iradokizunak, informatika tresnek bermatzen dutelarik helarazitakoa isilpekoa izango dela.

1.3. EGITEKOA. Udalak aukera-berdintasunari buruzko jardueraren bat antolatzen duen bakoitzean, horri buruzko kartelak egin eta udaletxean kokatu.

1.4. EGITEKOA. Udal sailetako zuzendari guztiei eta langileen batzordeari Berdintasun Planaren ale batzuk bidali, langileei bana diezazkieten.

1.5. EGITEKOA. Informazio-eskuorria prestatu berdintasunean bizi izateak andre-gizonei ematen dizkien abantailei buruz eta langile guztiei, enpresa kolaboratzaileei eta sindikatuei banatu.

2. helburua. Udala eredu izan dadila aukera berdintasunari dagokionez.

2.1. EGITEKOA. Lan-zerbitzuak esleitzeko oinarri-arauetan, edo enpresa, elkarte edo entitateekiko hitzarmenetan, kontuan hartu kontratatuak aukera-berdintasuna errespetatzen duen edo ez: Óptima Egitarauan parte hartu, hizkuntza, irudiak eta publizitatea sexismorik gabe erabili, giza baliabideen politika, etab.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

2.2. EGITEKOA. Eztabaida-taldea eratu udal sail guztietako emakumeekin, bi kontu hauek aztertzeko: batetik, emakumeen zailtasunak hainbat lanpostu lortzeko, lan mailan gora egiteko, lanpostua eta familia bizimodua eta bizimodu pertsonala bateratzeko, etab.; eta bestetik, lan inguruan oraindik ere badirauten estereotipo eta aurreiritzi sexistak.

2.3. EGITEKOA. Udaletxean estatistika informazioa hedatu: zenbat emakume eta zenbat gizon dagoen udal sail bakoitzean eta zein lanpostutan.

2.4. EGITEKOA. Planak indarrean iraun bitartean, Portugaleteko Udaleko eta horren menpeko erakundeetako langile guztiei prestakuntza eman, jardun-arlo guztietan generoaren ikuspuntua kontuan har dezaten.

2.5. EGITEKOA. Aldian behin jardunaldiak antolatu aukera berdintasunaz, bai Portugaleteko herritarrek bai udaletxeko langileek filosofia horren berri izan dezaten.

2.6. EGITEKOA. Emakumeek zuzendu eta prestatzen dituzten argitalpenen harpidetza egin, emakumeen ekimenei laguntzearren.

2.7. EGITEKOA. Desberdintasunaren behatokia sortu, horren aholku-kontseilua batzorde mistoa delarik.

3. helburua. Hizkera sexista deuseztatu arte gutxitu, bai Administrazio idazkietan bai ahozko jardunetan.

3.1. EGITEKOA. Sexuaren aldagaia kontuan hartu Udalak egiten dituen azterlan, txosten, oroit-idazki eta agiri guztietan.

3.2. EGITEKOA. Udal idazkiak aldiro aztertu, hizkera sexistak ote dirauen jakiteko eta ikastaroak antolatu sexismorik gabeko hizkeraz.

3.3. EGITEKOA. Udalaren enplegu-deialdietan lanpostuak emakume zein gizonei eskaintzen zaizkiela oso garbi utzi.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

3.4. EGITEKOA. Hainbat kartelen bidez, kanpaina antolatu udaletxeko langileak animatzeko sexismorik gabeko hizkera erabil dezaten bai maila ofizialean bai Udalari zerbitzuren bat eskatzen dion jendearekin har-ematean.

3.5. EGITEKOA. Zinegotziei jakinarazi oso inportantea dela eredu gisara jardun dezatela herritarren begietan, jendaurrean sexismorik gabeko hizkera erabiliz.

3.6. EGITEKOA. Udal sailetan lagun bana izendatu, sailak bai udaletxera bai udaletxetik kanpo bidaltzen duen informazioa aztertzeko, sexismorik gabeko hizkera eta irudiak zabal ditzan.

3.7. EGITEKOA. Udal sail guztietako langileak animatu, sexismorik gabe idazteaz duda egiten duten guztietan, web gunera jo dezaten.

3.8. EGITEKOA. Udal langileei ohartarazi eta prestakuntza eman, sexismorik gabeko hizkera erabil dezaten.

4. helburua. Udal sail guztien lan egiteko moduari atxiki aukera berdintasunaren filosofia.

4.1. EGITEKOA. Azterlana egin, datuak sexuka xehekaturik, sailetako langile guztien (udaletxekoak zein udal menpeko zentroetakoak) ezaugarriak eta zereginak deskribatzeko.

4.2. EGITEKOA. Aztertu ea udal sailetan lan, ekimen edo egitaraurik ote duen emakumeei bakarrik begira. Edukiz gero, ezaugarriak deskribatu.

4.3. EGITEKOA. Udal sail guztietako langileei ohartarazi aukera berdintasunaren garrantziaz.

4.4. EGITEKOA. Udal sail guztietako eta udal menpeko zentroetako teknikariei prestakuntza eman, generoaren ikuspuntua kontuan har dezaten beren jardun-eremu guztietan.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

4.5. EGITEKOA. Aukera berdintasunari buruzko ikastaro, jardunaldi eta mintegi guztien berri eman udal sail guztiei.

4.6. EGITEKOA. Sentsibilizazio kanpaina antolatu, jakinarazteko benetako berdintasuna lortuko badugu, berdintxe tratatu behar ditugula andreak eta gizonak.

4.7. EGITEKOA. Udaltzaingoari ohartarazi eta prestakuntza eman genero indarkeriaren biktimekin jarduteko protokoloaz.

4.8. EGITEKOA. Udalak eratzen dituen batzorde eta lantaldeetan emakume kopurua eta gizonen kopurua berdintsuak izan daitezela sustatu.

BIGARREN ATALA: PORTUGALETE UDALERRIA.
AUKERA-BERDINTASUNAREN ALDEKO
HELBURUAK ETA EGITEKOAK

2. ARLOA. HEZKUNTZA ETA LAN ETA FAMILIA BIZIMODUAK BATERATZEA

Emakumeek seme-alabei hezkuntza ematen bete ohi duten zeregina aztertuz gero, bitxia da konturatzea hezkuntza horrek lagundu egin duela emakumeak etxeetan gordetzen. Emakumeak izanik familia zaintzeko eta balio ustez egokiak transmititzeko arduradun nagusiak hasiera batean uste izatekoa zen berdintasunaren balioa transmitituko zutela; hala pentsatu dute behintzat askok. Dena den, hausnarketa sakonagoa eginez gero, aurkituko dugu emakumeei hezkuntza eman dien gizartea gizonezkoen neurrikoa izan dela, sistema patriarkalean sartua eta emakumeek gizarte horretako balio nagusiak transmititu dituztela. Hori esanda erraz ohartuko gara zein garrantzizkoa den hezkuntza, etorkizunean andre-gizonak berdinak izango badira. Hezkuntza-sistema sexista formal eta informalaren eragina gainditu ahal izateko, aurreneko urratsa da oso kontuan hartzea sistema horiek kalte handia egiten diotela gizakiaren garapen integralari. Horren aurka, bada,

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

emakumeek argi eta garbi jakin behar dute lanbidea edo ikasketa hautatzeko askatasun osoa dutela.

Azaroaren 5eko 39/1999 Legeak eta uztailaren 9ko 12/2001 Legeak aintzat hartzen dute lan- eta familia-bizimoduak bateratu beharra. Lege bion funtsezko ideia da andre-gizonen erantzunkidetasuna elkarbizitzaren nahitaezko oinarria dela eta, familia arloan sustatuz gero, ederki lagunduko diogula gizakien garapen libre eta integralari. Andre-gizonak erantzunkide izanez gero erabakiak hartzean eta garatzean, aukera berdintasunaren alde jardungo dugu dudarik gabe. Horregatik, bada, ezinbestekotzat jo dugu hainbat egiteko proposatzea, herritarrak ohar daitezen familia eta etxeko ardurak elkarbizitza-unitatearen osakide guztiei dagozkiela eta horrek, emakumeei ez ezik, gizarte osoari ekarriko diola onura.

Portugaleteko emakumeen beharrizanei buruzko azterketak (aipatu bezala, Udalaren Gizarte Sailak egina 2001. urtean) emakumeen ikasmaila ere ikertu zuen. Horren arabera, 1996. urtean Portugaleten 46.597 lagun ziren 16 urtetik gorakoak eta horietatik 25.647 ziren alfabetatu gabeak, ikasi gabeak edo oinarrizko ikasketak bakarrik eginak. Hogeita bost mila eta piko horietatik, 11.317 gizonezkoak ziren (%44,13) eta 14.330, aldiz, emakumezkoak (%55,87).

Ertaineko ikasmailei bagagozkie, berriz, hala lanbide nola bigarren mailakoetan, emakumeak (gazteak gehienbat) gero eta gehiago dira.

1. helburua. Udalerriko ikastetxeetara helarazi andre-gizonen aukera berdintasunaren printzipioa eta printzipio horren araberako lana sustatu.

1.1. EGITEKOA. Galdetegia prestatu honako datuak biltzeko: ikastetxeetan zer dakiten aukera berdintasunaz eta zein neurritaraino ohartu diren horren garrantziaz.

1.2. EGITEKOA. Galdetegiaren ondorioen berri eman ikastetxeei, eurek ere ikus dezaten zer dakiten aukera berdintasunaz eta zein neurritaraino ohartu diren horren garrantziaz.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

1.3. EGITEKOA. Esku-orria prestatu ikastetxeetan banatzeko. Orriak azalduko du zein garrantzizkoa den neska-mutilak berdin heztea etorkizunean aukera berdinak izan ditzaten.

1.4. EGITEKOA. Ikastetxeei jakinarazi Portugaleteko Udalak konpromiso sendoa duela andre-gizonen parez pareko trataera lortzearren.

2. helburua. Ikastetxeetan aukera berdintasunaren aldeko batzorde bana sortu.

2.1. EGITEKOA. Ikastetxeetan aukera berdintasunaren aldeko batzorde bana eratzen lagundu.

2.2. EGITEKOA. Batzorde horien iraunkortasunari lagundu; horretarako, berdintasun arloko adituak hartuko du parte batzordean, Udalaren ordezkari gisa.

2.3. EGITEKOA. Hiru hilabetean behin bilera egin ikastetxe bakoitzeko aukera berdintasunaren aldeko batzordeko kide binarekin. Bilera horietan ikastetxe bakoitzak bere jarduna azalduko du eta agertuz doazen arazoen irtenbideak eztabaidatuko ditugu.

2.4. EGITEKOA. Materialak eman, andre-gizonen berdintasunaren printzipioarekin bat etorriz lan egin dezaten.

2.5. EGITEKOA. Hiru hilabetean behin egin beharreko bileretan parte hartzen duten guztiei ohartarazi parez pareko hezkuntzaren garrantziaz.

3. helburua. Andre-gizonen erantzunkidetasuna garatu.

3.1. EGITEKOA. Esku-orria prestatu, udalerriko langileei eskuratzeko, adingabeak, minusbaliatu fisiko eta psikikoak eta menpeko pertsonak zaintzeagatik lor ditzaketen lizentzia eta

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

baimenei buruz, nabarmentzen dugularik oso inportantea dela gizonezkoek ere beren gain har ditzatela horrelako zereginak.

3.2. EGITEKOA. Udalerriko langile gizonezkoei informazioa eman, seme-alaba izateagatik edo familia arazoak direla kausa lor ditzaketen baimenei buruz.

3.3. EGITEKOA. Kanpaina antolatu, herritarrei begira, gizon--emakumeen erantzunkidetasuna eremu guztietan sustatzeko.

3.4. EGITEKOA. Azterlana egin, udalerriko langileek beren etxean bizi duten erantzunkidetasun maila jakiteko.

3.5. EGITEKOA. Epaitegiari informazioa eskatu: seme-alaben zaintzaren gainean zenbat epaitza diren amaren alde eta zenbat aitaren alde.

4. helburua. Familia, gizarte eta lan eginbeharrak bateratzen laguntzen duten gizarte eta komunitateko baliabideak eta zerbitzuak sortu, handitu edo hobetu.

4.1. EGITEKOA. Azterlana egin: zer-nolako gizarte zerbitzuak ditugun eta zeinek erabiltzen dituen, datuak sexuka xehekaturik.

4.2. EGITEKOA. Andre-gizonek komunitateko zerbitzu berriak sortzeko Udalari egiten dizkioten eskaerak aztertu eta erabaki zeinek laguntzen dioten gehien erantzunkidetasunari.

4.3. EGITEKOA. Gizarte-komunitateko zerbitzuen erabiltzaileen iritziak bildu, zein neurritaraino dauden pozik jakiteko eta hobetzeko erabakiak hartzeko.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

3. ARLOA. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA

Egun, dakigun bezala, erabat aitortu zaie emakumeei lanpostu soldataduna edukitzeko eskubidea; dena den, egoera ekonomikoa dela kausa, nekez erabil dezakete benetan eskubide hori, langabeziak batik bat emakumeei egiten baitie kalte. Horrek berresten digu, nahiz eta itxuraz behintzat bide luzea egin dugun, are luzeagoa daukagula oraindik egiteke lan aukera eta egoeran berdintasuna lortuko badugu.

Administrazioen ikerketek agerian utzi dute lan arloan ere emakumeak bazterrean daudela, emakumeen ogibideak beheko mailakoak direla eta, jakina, soldata txikiagokoak. Benetan harrigarria da ikustea oraindik ere, azken urteotako aurrerapena gorabehera, emakumeek eta gizonek genero-rolen araberako lanbideak hautatzen dituztela. Horren ondorioz, emakumeek laguntza eta zaintza emateko lanpostuetan ohi dihardute, zerbitzu arloan, alegia, eta gizonezkoek, aldiz, erabakiak hartzen diren arloetan ohi dihardute.

Lanaren banaketa horrek badakar berez lan batzuk eta besteak desberdin aitortu eta baloratzea eta, jakina, emakumeak galtzaile ateratzen dira, haien lana, gaizki baloratua izateaz gain, hainbatetan gizarteak ikusi ere ez baitu ikusten.

Hori guztia kontuan hartuta, Portugaleteko Udalak beharrezkotzat jo du, lehenik, Portugaleteko emakumeen lan egoera eta lan inguruan dituzten beharrizan nagusiak jakitea, eta bigarrenik, egoera hori aldatzeko konpromisoa erakustea. Horretarako, lehenengo eta behin, Udalak berak izan behar du eredu eta hainbat egiteko martxan jarri, emakume eta gizonek abiapuntu berbera izan dezaten.

1. helburua. Portugaleteko emakumeek enplegu eta prestakuntzari dagokionez daukaten egoera deskribatu.

1.1. EGITEKOA. Udalerriko emakumeen egoera ikertu, lan merkatuari eta laneratzeko mugei dagokienez.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

1.2. EGITEKOA. Emakumeek hainbat arlo zehatzetan burutzen ohi dituzten lanak eta horien ezaugarriak deskribatu.

1.3. EGITEKOA. Udalerrian zabaldu emakume langileen egoeraren berri, lanpostu eta prestakuntzari dagokienez.

2. helburua. Erabakiak hartzeko eremuetan emakume gehiago egon dadila.

2.1. EGITEKOA. Kanpaina antolatu, ohartarazteko benetako berdintasuna lortuko badugu, berdintxe tratatu behar ditugula gizonak eta emakumeak.

2.2. EGITEKOA. Udalak antolatzen dituen batzorde, lantalde eta prestakuntza lantegietan emakumeen eta gizonen kopurua berdintsua izatea sustatu.

2.3. EGITEKOA. Emakumeei erantzukizun eta erabakiak hartzeko lanpostuetara iristeko dituzten zailtasunak aztertu.

2.4. EGITEKOA. Emakumeei erantzukizun eta erabakiak hartzeko lanpostuetara iristea galarazten dieten oztopoak deuseztatu.

4. ARLOA. BIZI KALITATEA

Osasun eta gaixotasun kontzeptuak aldatuz joan dira historian. Gaur egun, osasunaz arduratzen diren nazioarteko erakundeak osasun integralaz mintzatzen dira, hots, gaixotasunik ezaz gain, ongizate biopsikiko eta sozialaz ere bai.

Osasuna genero ikuspuntutik aztertuz gero, nabari egiten da emakumeen egoera eta gizonezkoena elkarren oso desberdinak direla, sexu bati eta besteari esleitutako rolek bizi kalitate maila desberdina ekarri dute-eta. Hortaz, emakumeak osasunaz arduratu ohi dira, familia eta ingurukoen zaintza euren gain hartuta.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

Ardura horrek kalte egiten dio emakumeen osasunari, emakumeek, ingurukoen zaintzan dihardutela, ez baitiote beren osasunari jaramon nahikorik egiten eta ez baitute laguntzarik eskatzen behar dutenetan.

Beraz, emakumeek konpromiso handiagoa eduki beharko lukete euren osasunarekin, gehiago zaindu beharko lukete beren burua eta aldizkako medikuntza-azterketak eduki beharko lituzkete, oro har pairatzen dituzten gaitzak aurrezaintzeko xedez.

Emakumeen osasunaren egoera orokor horri gehitu behar dizkiogu genero-indarkeriaren ondorio ezin okerragoak. Estatuak bere gain hartu duenez gero orban hilgarri hori deuseztatu beharra, hainbat kanpaina jarri du abian, herritarrek gizartean sustrai luzeak egindako zenbait ideia alda dezaten eta ez dezaten haboro uste etxeko indarkeria bikotearen kontua baino ez dela, emakumeek nahi dutelako bizi dituztela horrelako egoerak eta beste hainbat aurreiritzi oker. Genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeek sekula ez dute babesik izan; Portugaleteko Udalak, aldiz, horren kontra egin nahi du, genero-indarkeria aurrezainduz eta tratu txarrak pairatutakoei hobeto lagunduz.

1. helburua. Denon begi-bistan jarri emakumeen egoera osasunari dagokionez eta Udalak horretarako eskaintzen dituen zerbitzuak aztertu.

1.1. EGITEKOA. Emakumeek osasun arazoak dituztenean udaletxeko zein zerbitzutara jo ohi duten aztertu.

1.2. EGITEKOA. Zerbitzuotan hauexek aztertu: zerbitzu horietako zenbat dagozkion Udalari, zer-nolako ezaugarriak dituzten eta zein egitarau edo ekimen garatzen duten emakumeei begira zehazki.

1.3. EGITEKOA. Osasunari buruzko ikerketa guzti-guztietan kontuan hartu sexuaren aldagaia, gizarte-demografia aldagaiak eta ekonomia aldagaiak ere bai.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

2. helburua. Osasun zentroarekin batera jardun, emakumeen osasunaren hobekuntza koordinatzeko.

2.1. EGITEKOA. Bilerak egin osasun zentroko langileekin, emakumeen osasuna hobetzeko zer egin erabakitzeko.

2.2. EGITEKOA. Udalerriko emakumeen osasunari buruzko datuak aztertu, osasun arloko profesionalek horien berri izan dezaten.

2.3. EGITEKOA. Jakin zein gaitzek jotzen dituzten gehienbat emakumeak eta horiei buruzko ikerketak sustatu.

2.4. EGITEKOA. Osasun zentroarekin batera, emakumeei jakinarazi beren gaitz bereziak aurrezaintzeko osasun araketak egin beharra.

3. helburua. Emakumeen pobrezia deuseztatu.

3.1. EGITEKOA. Udalbatzak eskaera egingo du, dagokionak beharrezko legeak alda ditzan, pentsioen jaurpide juridikoa herritarren benetako beharrizanei egokitzeko xedez.

3.2. EGITEKOA. Emakumeek, batetik, eta gizonek, bestetik, pobrezia eta gizarte-bazterkeria nola pairatzen duten aztertu eta horren berri eman.

3.3. EGITEKOA. Udalbatzak formaz eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, martxan jar dezan genero-indarkeriaren biktimak diren edo izan diren emakumeak gizarteratu eta laneratzeko xedez diharduten enpresak diruz laguntzeko plana.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

4. helburua. Genero indarkeria gutxitu.

4.1. EGITEKOA. Beste informazio kanpaina bat egin, Udalak genero-indarkeriaren biktimen esku jartzen dituen zerbitzuen berri emateko.

4.2. EGITEKOA. Genero indarkeria gaitzetsi eta arbuiatzen duten erakundeen kanpainekin bat egin.

4.3. EGITEKOA. Hainbat jarduera burutu, herritarrei begira, emakumeen aurkako indarkeria aurrezaintzeaz ohartarazteko.

4.4. EGITEKOA. Azaroaren 25a, Emakumeek Pairatzen duten Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, hitzaldi batzuk antolatu herritar guztiei begira.

4.5. EGITEKOA. Gaitzesteko ekitaldia prestatu, Espainian, genero indarkeria dela-eta, emakume bat hiltzen den bakoitzean burutzeko.

4.6. EGITEKOA. Ikastegiekin batera prestatu eta martxan jarri genero indarkeria aurrezaintzeko egitaraua.

5. helburua. Genero indarkeriaren biktimak diren emakumeen laguntza hobetu.

5.1. EGITEKOA. Portugaleteko polizia eta ertzaintza etxeetara bidali hainbat esku-orri eta kartel, genero indarkeriaren biktimak diren emakumeek, behin demanda eginda, jakin dezaten zein zerbitzu edo elkartetara jo dezaketen.

5.2. EGITEKOA. Portugaleteko Emakumearen Aholkutegiaren lana osatu, lege aholku zerbitzua gehituz.

5.3. EGITEKOA. Genero indarkeria pairatutako emakumeen iritziak eta kexuak bildu azterlan batean.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

5. ARLOA. KULTURA, ELKARTEGINTZA ETA KIROLA.

Udalaren Gizarte Ongizate Sailak 2001. urtean egin zuen Portugaleteko emakumeen beharrizanei buruzko azterlana abiapuntu hartuta, begi-bistan daukagu emakumeek eta gizonek ez dutela berdin parte hartzen herriko kultur, kirol eta elkartegintza bizimoduan. Horregatik, arlo honetako egitekoen bidez, saiatuko gara emakumeen eta gizonezkoen partaidetza orekatuagoa izan dadin.

Udalerriko emakumeen elkarteez ari bagara, *Las Amigas* kultur elkartea, BBKren Emakumea Sustatzeko Zentroa eta Udalaren Emakume Aholkutegia aipatu behar ditugu.

Emakumeen elkarte horietaz gainera, badago beste elkartegintza mota heterogeneoago bat, zeinean emakumeen zeregina inportante samarra den; gainontzeko kultur, prestakuntza, garapen eta abarreko elkarteez ari gara.

Beraz, nahiz eta Portugaleten emakumeez bakarrik osatutako elkarte gutxi egon, kontuan hartzekoa da, halaber, beste elkarteetan ere emakume asko dabiltzala. Elkarte horiek aipatzen dituzten arazoak mota askotakoak dira: ekonomikoak, elkarteen arteko eta Udalarekiko harremanik eza, etab. Eskatzen dute, bestetik, gizarteak aldaketa-agente gisara garatzen duten zeregina aintzat hartzea.

Zubi-Alde kiroldegiaren eskaintza aztertuta, emakume gehiago ari dira eme-sexuari omen dagozkion jardueretan, aerobik eta gimnastikan hain zuzen; bestetik, emakume urri dabiltza futbito, saskibaloi, badminton eta rokodromoan.

Halaber da aipagarria komunikabideek bestela tratatzen dituztela gizonezkoek egin ohi dituzten kirolak eta emakumeek egin ohi dituztenak, emakumezkoenei jaramon gutxi egiten baitiete, gizonezkoenak bezain inportanteak ez direlakoan.

Horregatik erabaki dugu planaren hainbat egitekoren xedea izan dadila emakume gehiago aritzea kirolean, emakumeen kirol taldeak sortzea eta kirolean egiteko nahiko toki fisikoa edukitzea.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

1. helburua. Emakumeek kultura arlo guztietan egin duten ekarria agerrarazi eta aintzat hartu.

1.1. EGITEKOA. Kultur jarduerak antolatzeko udal dirulaguntza jasotzen duten elkarte eta organismoei eskatu beren jardueren txostenean emakumeen partaidetza eta ekarria deskriba dezatela.

1.2. EGITEKOA. Historia, arte edo kultura arloan nabarmendu diren Portugaleteko emakumeei buruz ikertu.

1.3. EGITEKOA. Historian nabarmendu diren herriko emakumeen egina hedatu.

1.4. EGITEKOA. Emakumeen bizipenei buruzko kontakizun laburren lehiaketa antolatu.

2. helburua. Emakumeek udalerriko elkarteetan parte har dezatela sustatu.

2.1. EGITEKOA. Emakumeak animatu, udalerriko elkarteetan parte hartzera, elkarteok antolatzen dituzten jardueren berri emanez.

2.2. EGITEKOA. Azterlan batean agertu, batetik, udalerriko elkarteek duten emakumeen partaidetza, eta bestetik, emakumeek egiten duten lan zehatza, elkarteetan duten egoeraren berri emateko.

2.3. EGITEKOA. Aurrekontua xedatu, emakumeen elkarteei dirulaguntza emateko, udalerriko gizarte eta kultur bizimoduan parte hartze handiagoa izan dezaten.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

3. helburua. Emakumeen taldeen ekimenei laguntza teknikoa, aholkua eta prestakuntza eman, ezagutza maila hobe dezaten.

3.1. EGITEKOA. Hiru hilabetean behin hartu-eman elkarteekin, haien eskaeren berri jakiteko.

3.2. EGITEKOA. Prestakuntza ikastaroak antolatu, emakumeen elkarteen eskaeraren arabera.

3.3. EGITEKOA. Elkarteei aholkua eman, beren lanean generoaren ikuspuntua kontuan har dezaten.

3.4. EGITEKOA. Udal liburutegian emakumeei buruzko argitalpenen atala sortu. Behar izanez gero, berdintasunaren aldeko batzorde mistoak argitalpen interesgarrienen zerrenda prestatuko luke.

4. helburua. Kirolean aritzen diren neskatila eta emakume kopurua handitu.

4.1. EGITEKOA. Ikerlana egin, generoaren ikuspuntua hartuta, neskatilek eta emakumeek kirolean duten egoera jakinarazteko.

4.2. EGITEKOA. Kiroldegietan kartelen bidezko kanpaina egin. Kartelek andre-gizonak eta neska-mutilak erakutsiko dituzte, hainbat kiroletan aritzen, denak batera, aukera berdintasunaren printzipioaren arabera.

4.3. EGITEKOA. Emakumeen kirol taldeak eta talde mistoak sortzea sustatu.

4.5. EGITEKOA. Emakumeak eta gizonak kirolean aritzeko toki berdintsuak, kopuruaz eta tamainaz, izan ditzatela sustatu.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

6. ARLOA. HIRIGINTZA

Dakigunez, emakumeek mendeetan jardun ohi dute eremu pribatuetan, etxeetan, eta gizonezkoek, aldiz, eremu publikoan. Banaketa horren ondorioz, gizonezkoek erabaki dute beti hiriak nola antolatu, euren beharrizanak, eta ez emakumezkoenak, kontuan hartuta, noski. Beharrezkoa dugu, beraz, emakumeen beharrizanak ere aintzat hartzea, gizonezkoenekin batera, udalerria antolatzeko tenorean.

Portugaleteko emakumeen beharrizanen azterlanak agerian utzi zuen herriko kale, plaza eta monumentuek gizon izena dutela; emakumeen presentzia, bada, sinboloetan ere bai, urriagoa da gizonena baino. Horregatik planifikatu dugu, Hirigintza atalean, zeregin oso zehatz bat, herriko kale eta plazei eme izenak esleitzeko, harik eta eme izenekoen kopurua eta gizon izenekoena berdindu arte.

Halaber, lortu behar dugu apurka-apurka kentzea mendekoak zaindu eta etxeko lanak egiten dituzten lagunei eguneroko beharra zailtzen dieten arkitektura oztopoak. Kentze horrek gaur egun onura handiagoa emakumeei ekarriko dien arren, espero dugu hemendik gutxira aipatutako zereginetan diharduten gizonezkoei ere onura ekartzea.

Azkenik, garraio publikoei bagagozkie, haien funtzionamendua hobetu behar dugu eta Portugaleteko andre-gizonen beharrizanei egokitu.

1. helburua. Generoaren ikuspuntua sartu hirigintza plangintzan.

1.1. EGITEKOA. Azterlana egin, udalerriko emakumeek eta gizonek aurre egin behar izaten dieten arkitektura oztopoei buruz.

1.2. EGITEKOA. Emakume gazte zein helduei galdetu zeintzuk diren udalerriko alde segurtasunik gabeak (argi falta dela eta, komunikabide eskasak direla eta, etab.).

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299

1.3. EGITEKOA. Emakume izena eman kale eta plaza berriei, Portugaleten gizon izeneko kale eta plaza kopurua eta emakume izenekoen kopurua berdintsuak izan arte.

2. helburua. Etxebizitzen politika, elkarbizitza unitate mota desberdinak osatzen dituzten pertsonen beharrizanen arabera garatzen lagundu.

2.1. EGITEKOA. Elkarbizitza unitateko kideek etxebizitzaren gelak nola erabiltzen dituzten aztertu.

2.2. EGITEKOA. Azterlana egin, udalerriko elkarbizitza unitate motak ezagutzeko.

2.3. EGITEKOA. Eztabaida egin, familia eta bikoteei gertatzen ari zaizkien aldaketei buruz eta aldaketa horiek berenez dakartzaten ondorioei buruz.

2.4. EGITEKOA. Etxebizitzen eskaintza publikoa egokitu, azterlanak agertzen dituen pertsonen eta elkarbizitza unitateen beharrizanetara.

3. helburua. Garraio publikoaren funtzionamendua hobetu, emakume eta gizonen beharrizanetara egokituz.

3.1. EGITEKOA. Udalbatzak formaz eskatzen die Portugaleteko garraioaren ardura duten administrazioei, garraioen maiztasuna eta orduak erabiltzaileen beharrizanak kontuan hartuta egoki ditzan.

3.2. EGITEKOA. Garraio geltokietan segurtasun neurriak hartu, gauean batik bat.

Ayto. Portugalete NIF.: P-4809100-C Telf..: 94-4729200 Fax.: 94-4729299